

# HIZKUNTZEN KUDEAKETARI LOTUTAKO PRAKTIKA ONAK JASOTZEKO FITXA

## ERAKUNDEAREN DATUAK (eskatzen diren 5 eremuak bete mesedez)

Datu hauek eta praktika onen fitxa betetzerakoan, baimena ematen duzu goian agertzen diren eremuak eta betetako praktika onen fitxa Euskaliteko webgunean argitaratzera, modu irekian zabaldu daitezten.

<b>1. Erakundearen izena:</b>	EIKA S.COOP.
<b>2. Sektorea:</b>	Osagaiak
<b>3. Langile kopurua:</b>	600
<b>4. Webgunea:</b>	<a href="http://www.eika.es">www.eika.es</a>
<b>5. Erakundearen jardueraren deskribapena:</b> (produktu eta zerbitzu nagusiak, merkatua, bezero motak...):	<p><a href="#">Egoketa elektrikora zuzendutako osagaiak ekoizten ditu, etxetresnen osagaietan munduko liderra dela esan daiteke. Etxebarrian du egoitza nagusia eta lantegiak ditu Txekiar errepublikan, Mexikon eta Polonian; guzira 1.100 langile inguru daude.</a></p> <p><a href="#">Merkatuari dagokionez, mundu osoan saltzen du Eikak; bai Amerikan, bai Europan eta baita Asian ere. Etxetresna ekoizleak dira Eikaren bezero nagusienak; Whirlpool, Balay, Teka eta Samsung esaterako.</a></p>

## Harremanetarako datuak

Eremu hauek hautazkoak dira. Datuak betetzen badituzu, webgunean azalduko dira bere horretan. Horrela, zure praktika interesgarria suertatu zaion erakundea zurekin harremanetan jarri ahal izango da:

<b>Solaskidearen izen-abizenak:</b>	Naia Doistua
<b>Helbide elektronikoa:</b>	<a href="mailto:ndoistua@eika.es">ndoistua@eika.es</a>
<b>Telefonoa:</b>	946167732

## PRAKTIKA ONAREN AZALPEN LABURRA

<b>1. Praktika onaren titulua:</b>	Euskara koordinatzailea izateko beharrezkoa da zuzendaritzako kidea izatea
<b>2. Praktika onaren azalpena:</b>  Zer da? Zertan datza?  Nondik dator?  Zeintzuk dira onurak, lortu diren emaitzak?	<p>Euskara planaren egiturari dagokionez, <b>Euskara Batzordea organoetako ordezkariak osatzen dute</b>; Kontseilu Errektoreko ordezkari bat, Kontseilu Sozialeko 4 ordezkari eta Zuzendaritza Batzordeko ordezkari batek osatzen dute Euskara Batzordea. Gainera, 2011n Eikaren Hizkuntza politika (euskararen eskuliburua) egin berri zenean, bertan jaso zen, eta ordutik <b>Eikan euskara koordinatzaile kargua hartzen duena Zuzendaritza Batzordeko kidea izan behar da.</b></p> <p>Erabaki hori hartu zen euskara batzordeak Eikako gainerako batzordeek daukaten ofizialtasun bera izateko, batzordea Eikako egituran txertatzeko eta euskara planaren <b>erakundetzean aurrerapausoak</b> ematen jarraitzeko. Era horretara, <b>euskara koordinatzailearen bidez, zuzendaritza batzordeak hileroko egiten dio jarraipena euskara planari enpresako beste edozein gairi bezala.</b> Aldi berean, <b>Euskara Batzordeak prestigioa</b> lortu du eta <b>erabakigune garrantzitsua</b> bihurtu da Eikan euskara arloko erabakiak bideratzeko.</p>

## PRAKTIKA ONAREN INGURUKO DOKUMENTAZIOA, IRUDIAK, GRAFIKAK...

(Hemen itsatsi tresna/dinamika/praktikaren irudiak, dokumentuak, grafikak, eta abar.)

Euskararen eskuliburua bezala ezagutzen da Eikaren Hizkuntza Politika, eta bertan dago jasota goian azalduko, 6. Kapitulan:

#### 6.4.2 Euskara Batzordea

**Osaketa:**

- Euskara koordinatzailea: Zuzendaritzako kidea izango da.
- Kontseilu Errektorea: ordezkari 1.
- Zuzendaritza Batzordea: ordezkari 1.
- Kontseilu Soziala: ZULEn 3 ordezkari eta ZELen ordezkari 1.
- Euskara teknikaria: ordezkari 1.
- Aipatutako kide huez gain, Organo bakoitzak kide gehiago proposatu ahal izango ditu, proposamena arrazoituz.

**Aukeraketa:** parte hartzea borondatezkoa izango da, eta kideak Organo bakoitzak aukeratuko ditu bozketa bidez (komenigarria da aukeratuko diren kideek euskararenganako sentsibilitatea izatea). Bozketa prozesua Eikako gainerako bozketa prozesuak bezala burutuko da. Prozesuaren arduradunak Euskara Batzordeko kideak izango dira.

**Kideen iraupena:** delegatutako karguaren iraupena 2 urtekoa izango da. Koordinatzailearena 4 urtekoa izango da.

#### 6.4.3 Euskara Batzordeko idazkaria

**Euskara Batzordeko idazkariaren erantzukizuna da** Euskara Batzordeko bilera deiak egin eta aktak jasotzea. Baita koordinatzailearen eginkizunetan laguntza ematea ere.

#### 6.4.4 Koordinatzailea

**Euskara koordinatzailearen erantzukizuna da** plana garatzeko behar beste informazio lortu, Zuzendaritzaren aurrean planaren berri eman eta horiek hartu beharreko erabakietan aholkuak eman eta erabakiak bideratzea. Enpresan euskara planaren ardatz izango da eta etengabeko hobekuntza lortzeko jarrera kritikoa izango du.

**Hautaketa:** Zuzendaritzak izendatuko du, Euskara Batzordearen proposamena entzun ondoren.